

Pedro María Iriondo Bengoajunak, UPV/EHUko Gerentzia Nagusiko buruak (2.zuzk) bidez izenpea eskuordetuta Leioa, 2020(e)ko martxoaren 3(a)ren...
Pedro María Iriondo Bengoa, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original. Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 12 de septiembre de 2017, la jefe de negociado de Gerentzia Nagusia (dot 2). S. de marzo de 2020.



ERABAKIA, 2020ko MARTXOAREN 3koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, BETE GABE UZTEA DEKLARATZEN DUENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO, GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALAKO (MEDIKUNTZA) LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA.

UPV/EHUko gerentearen 2019ko otsailaren 1eko erabakiaren bidez deialdia egin zen gestioko teknikarien eskalako (Medikuntza) lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesua, administrazio eta zerbitzuetako langileen arloan aldi baterako zerbitzuak betetzeko.

Hautaketa prozesua amaiturik, epaimahaiak prozesua bete gabe uztea erabaki zuen. Erabaki hori argitara eman zen Seigarren Oinarriko zazpigarren atalean adierazitako tokietan, 2020ko urtarrilaren 30ean, eta UPV/EHUko gerentzia honi helarazi zitzaion prozesuaren behin betiko ebazpena eman zezan.

Epaimahaiaren erabakiaren aurka ez da gora jotzeko errekurtsorik jarri horretarako ezarritako epean.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Gerentziak, errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau:

ERABAKI DU

Lehenengoa.– Epaimahaiaren proposamena onartzea eta bete gabe uztea gestioko teknikarien eskalako (Medikuntza) lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesua, Epaimahaiaren erabakiarekin bat etorrita, 2020ko urtarrilaren 30ean argitaratu zena.

Bigarrena. - Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko martxoaren 3an.

Miren Lorea Bilbao Artetxe
UPV/EHUko Gerentzia



UNIBERTSITAT DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. n.º 853/2020 Erabaki Zk